

Lan plangintzaren balorazioa

taldea:

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

ikasturtea:

2018-2019

1. Sarrera

PARTAIDEAK

Iñaki Jauregialtzo Beitia eta Itziar Lafuente Osa

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEAK

Kodea	Izena	Herria
A01		
010604	Mendialdea IPI	KANPEZU
010042	Unamunzaga HLHI	RIVABELLOSA
010663	Egibide BHIP	GASTEIZ
010330	Ekialdea BHI	GASTEIZ
010221	Urkide HLBHIP	GASTEIZ
010234	Santa María HLBHIP	GASTEIZ
010052	Adurza Ikastola HLHI	GASTEIZ
010256	Hostelería LHII	GASTEIZ
010229	Carmelitas-Sagrado Corazón HLBHIP	GASTEIZ
010218	Hogar San Jose HLBHIP	GASTEIZ
010138	Mendizabala LHII	GASTEIZ
010135	Los Herrán BHI	GASTEIZ
010248	Egibide BHIP	GASTEIZ
010137	Ciudad Jardín LHII	GASTEIZ
010288	Gasteizko HEO	GASTEIZ
010296	Eraiken LHII	GASTEIZ



Berritzeguneak

Vitoria-Gasteiz



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Centros de Apoyo a la Formación e
Innovación Educativa

MD1213

Err. *Onespen eta
indarreko data*

0 01-07-2011

A02

010002	Dulantzi HLHI	DULANTZI
010319	Zaraobe BHI	AMURRIO
010012	Ikasbidea Ikastola IPI	DURANA
010201	Laudioalde Lanbide Eskola BHI	LAUDIO
010199	La Milagrosa HLBHIP	LAUDIO
010351	Laudio BHI	LAUDIO
010179	P. Lope De Larrea Ikastola HLHI	AGURAIN
010046	Aniturri BHI	AGURAIN
010048	Izarra Eskola HLHI	URKABUSTAIZ
010510	Lakuabizkarra HLHI	GASTEIZ
010329	Mendebaldea BHI	GASTEIZ
010228	Presentación De María HLBHIP	GASTEIZ
010244	Paula Montal HLBHIP	GASTEIZ
010257	Koldo Mitxelena BHI	GASTEIZ
010266	Miguel De Unamuno BHI	GASTEIZ
010142	Pedro Ignacio Barrutia Ikastola HLHI	GASTEIZ
010153	Toki Eder Ikastola HLHI	GASTEIZ
010188	Padre Raimundo Olabide HLBHIP	GASTEIZ
010233	San Viator HLBHIP	GASTEIZ
010157	Murgia BHI	ZUIA
010010	Arteko Gure Ama HLHI	ARTZINIEGA
010251	San Prudencio HLBHIP	GASTEIZ

MD1213	
Err.	Onespen eta indarreko data
0	01-07-2011

PROGRAMAREN JARRAIPENA ETA AHOLKULARITZA

Hiru mintegi burutu dira: Gasteiz HHLH, Gasteiz BH eta Aiara Mintegia. Gasteizen 33 ikastetxek hartu dute parte eta Aiara bost izan dira. Hauen artean bost ikastetxe gonbidatu izan ditugu eta hauek ikasturte honetan burutu dute proiektua 3 ikasturterako: Ciudad Jardín (A01), HEO Gasteiz (A01), Construcción Eraiken (A01), Arteko Gure Ama (A02) eta Pedagógica San Prudencio (A02).

Ikastetxe berriei aukera eman zaie hilero, lehen asteartean, lan talde propio batean aritzeko eta hilero etorri dira lan talde horretara proiektu berria eratzeko bideratuz.

Mintegietan lan ezberdinak burutu dira aurretik planteatutako kronograma betez.



Urtarriletik maiatzera lan taldeetan landu diren gaiak hauexek izan dira:

HH-LHko gaiak

- Emozioak eta euskara uztartzen
- Irakurzaletasuna
- Ikasleen ekoizpena ALEA aldizkarian
- EHB 18 Ikasleak

BHko gaiak

- Irakurzaletasuna
- EUSLE metodologia
- EHB 18 Ikasleak

Lanbide Heziketako gaiak

- Lantokiko praktikak euskaraz
- Ikastetxe barneko bilerak egiteko hizkuntza irizpideak

Lan taldeak - AIARA

- Ahozkotasuna , erabilera
- EHB lanketatik ikasleak, irakasleak eta gurasoak.
- Eremu informalaren lanketa
- EGB dinamikak eta Motibazioa.
- EUSLE irakasleen artean (La Milagrosa).

Mintegietako gaiak, egunez egun, site honetan daude islaturik: <https://labur.eus/hnparaba1819>
Hurrengo ikasturtean Aiara mintegia Gasteiz Mintegian uztartuko da , bertako kideak Gasteizera

etorriko direlarik.

Lanbide Heziketako ikastetxeak azpitalde bezala funtzionatzen hasi dira ikasturte honetan eta jarraipena emango zaio antolaketa honi.

Hurrengo ikasturtean Iñaki Jauregialtzok urte sabatikoa hartuko du eta bere ordez Oier Zearra egongo da.

PRESTAKUNTZA SAIOAK

AHOZKO HIZKUNTZA ESKOLAN LANTZEN prestakuntza hiru saio antolatu dira Soziolinguistikako Klusterreko Olatz Bengoetxearen eskutik, bat barneko aholkularientzat, beste bat mintegi-kideentzat eta azkena, irekia irakasleentzat. Oso harrera eta balorazio onak izan dituzte. Aurrerantzean ere prestakuntza mota hauekin jarraitzeko asmoa dugu.

EGB BARRIArekin aurreko ikasturtean formakuntza esparruan hasitako lankidetzari jarraipena eman diogu ikasturte honetan ere, bi prestakuntza saio eman dituztelarik Berritzegunean:

- Euskara sustatzeko talde-erronkak
- Euskararekiko harreman afektiboa

Balorazio oso positiboa izan da eta jarraipena eman nahi genioke, aurrerantzean ere, lankidetzara honi.

ERAKUNDEEKIN LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA

Erakunde hauekin aritu izan gara euskararen normalizazio esparruan lankidetzan:

- Gasteizko Udala: Euskararen biziberritze planean.
- Arabako Foru Aldundia: Aisialdia eta euskara alorrean.
- Arabako magisteritza eskola: mahai ingurua antolatuz mintegian euskararen didaktikaren inguruan.
- EGB Barriarekin koordinazioa
- EBETE: "Familia eta euskara" bideoak.

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUTIK PROPOSATUTAKO PILOTAJEAK

- Eusle Hezkuntzan – Jostaketan ekimena: Toki Ederren burututako pilotajearen ikasturte osoan zehar bideratu dugu koordinazioa ikastetxeko HNATarekin eta Klusterrekin.
- Eusle Programa - Harrera gelak: Normalkuntza kide bat etorri berrientzako harrera gela hauen diseinu, formakuntza eta materialgintzan aritu izan da.

Bi pilotaje hauek jarraipena izango dute hurrengo ikasturtean ere.

BERRITZEGUNEKO BARNE PRESTAKUNTZA NORMALKUNTZA PROGRAMAK ANTOLATUTAKOAK

Hiruhileko bakoitzean barne-prestakuntza bat antolatu da Berritzeguneetako lankideentzat:

- Euskaraldia eta Euskararen Nazioarteko Eguna
- "Sexualitatea eta euskara" Emaize elkartearen eskutik.
- Letragile laborategia Edu Zelaietaren (EHUko irakasle) gidaritzapean.

Balorazioa oso positiboa izan da baina azken saioan, datak direla eta, partaidetza txikia izan da.

Ekintza hauen jarraipena aztertu beharra ikusi dugu eta hurrengo ikasturtean hartuko da erabaki bat.

2018-2019 IKASTURTEKO HELBURUAK

Ikasturteko planean planteatutako helburuan bete dira. Hauexek izan zirelarik:

- Ulibarriko Ikastetxeei aholkularitza eta jarraipena ematea.
- Ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik, normalkuntza alorrean garapen egokiena bideratzea.
- Ulibarri mintegiak antolatzea eta dinamizatzea.
- HNATen artean lan taldeak eratzea eta dinamizatzea, interesgune ezberdinak jorratu, hauek implementatu eta ondorioak aztertuz eta partekatuz.
- HNAT-n prestakuntzan baliabide egokiak eskaintzea: EHB, ahozotasuna.
- HNAT eta HNBatzordeari tokian tokiko erantzunak eskaintzea normalkuntza alorraren inguruan.
- HN koordinazio bileratan parte hartzea.
- HN Lan taldeetan parte hartzea.
- Euskara Zerbitzuko kideekin planifikazio bileratan parte hartzea.
- Aldundiko eta Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariek koordinazioan eta lankidetzan aritzea.
- Euskalgintzako taldeekin lankidetzan aritzea.
- Berritzeguneako IKT programarekin lankidetzan uneak eta gaiak bideratu.

2. Ikastetxeetan garatu diren eskuhartze nagusiak [esanguratsuak] Sailaren lehentasunezko jarduera-eremuen arabera

Ondo egindakoa <i>Lo que se hizo bien</i>	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak <i>Aspectos a mejorar y propuestas</i>
*Norbanako memorian islatu dira.	

3. Prestakuntza ekintzak: ikastaro eta mintegiak

Ondo egindakoa <i>Lo que se hizo bien</i>	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak <i>Aspectos a mejorar y propuestas</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Mintegiak ondo baloratuak izan dira (7,5). - Mintegi guztiak Normalkuntza aholkulari bien artean prestatu dira. Aiara Mintegian Iñakik hartu du gidaritza eta Gasteiz Mintegian bien artean dinamizatu dira. - Kanpoko agenteek (EGB Barria, Klusterra) eskainitako formazioak programaren edukiak hornitzeko oso baliogarriak izan dira. - Siteari jarraipena ematea ikasturteko gai eta material bilgune gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Denbora falta dela eta garai batean eskaintzen zen "Ikasgelatik kanpo euskararen erabilerarako estrategiak" mintegia ezin izan da antolatu ezta burutu. - LHko aholkularitzak eta esku-hartzeek ikasturte honetan izan duten lan zamagatik Normalkuntza Programaren zereginetan eragina izan dute, programak beharko lukeen denbora ezin izan baitiogu eskaini zenbait momentutan. - Eusle Programan parte hartzea aberasgarria izan da baina era berean, dedikazio handia eskatu du



MD1213	
Err.	Onespen eta indarreko data
0	01-07-2011

<http://labur.eus/hnparaba1819>

- *Ikastetxe berriekin tutorizazio pertsonalizatua eta sistematikoa bideratu da Berritzegunean bertan.*
- *Pilotajeetan lankidetzan eskatu duten erakundeei erantzuna eman zaie.*

eta Normalkuntza lanak bigarren planoan geratzea ekarri du zenbait momentutan.